



Igor Astibia preso leitzarra aske utzi du Espainiako Auzitegi Nazionalak



Igor Astibia. HITZA

KALEAN ▶ Duela bi urte «sarekada prebentiboan» atxilotu zuten; 25.000 euroko fidantza ezarri diote

ONGIETORRIA ▶ Herriak omenaldi beroa eskaini zion atzo; heldu den asterako beste bat iragarri dute ▶ 7



«Tolosar guztiek dute lotura babarrunarekin, bere egiten dute»

TOLOSA ▶ Roberto Ruiz Fronton jatetxeko sukaldariak *Pul, pul, pul Tolosako Babarruna* liburua aurkeztu zuen, atzo, Babarrun Astearen harira. Babarrunaren inguruko lanen inbentarioa egin eta hainbat sukaldariren errezetak bildu ditu beasaindarrak. Jaki honi omenaldia egin nahi izan dio. INIGO TERRADILLOS ▶ 3

TOLOSA ▶

«Egoera okertuz doa eta irtenbiderik ez du ematen Udalak»

Plataformak Gerontologiko zaharra irekitzea eskatu du beste behin ▶ 2



jantzi

hitza^{ren}
jertseak

HITZAren egoitzetan salgai





TOLOSA ▶ GIZARTEA

«Egoera okertuz doa eta irtenbiderik ez»

Gerontologiko zaharra irekitzeko, eta hau, lurreamendi fundazioak kudea dezala eskatzen dute plataformakoe

ESTI EZEIZA

Ia sei hilabete igaro dira Gerontologikoaren aldeko plataformak azken batzarra egin zuenetik. Hala, maiatzetik hona informazioa biltzen aritu dira. Plataformakoe azaldu zutenenez, «arrazoi politikoengatik itxi zen aurreko gerontologikoa, eta orain, berdin zaio zein argudiorekin, baina berriro irekitzeko exijitzen dugu». Izan ere, joan den urtearen hasieran, egoitzaren erabilera aldaketa hitzartu zuten Udalak eta Aldundia. Baina itxi zenetik laister bi urte beteko dira, eta oraindik hutsik jarraitzen du. Egoera hau salatze asmoz agerraldia egin zuten joan den larunbatean, eta plataformakoen esanetan, «inoiz baino jende gehiago bildu zen ekitaldian». Hemen, ekintza sinboliko gisa, gerontologikoko egoitza zaharrean sartu ziren bertaratutakoak eta bi solairuak hartu zituzten.

Bestalde, sei hilabete igaro dira Tolosako Udalak gerontologiko berri baten aurreproiektua aurkeztu zuenetik, eta orduetik hona, plataformakoen esanetan «ez dugu berri gehiagorik izan, eta arazoak hor jarraitzen du». Datuen arabera, egun, egoera honek, orotara, 1.650 pertsonengan du eragina. Hori dela eta, «berehalako



Gerontologikoaren aldekoak larunbatean egindako agerraldia. HITZA

KANPAINA

«Hauteskundeak datozen honetan EAJ-k kanpaina egiteko erabiliko du ziurrenik Gerontologikoaren gaia»

irtenbide bat» eskatzen dute. Beraiek emandako datuen arabera, egun 60 pertsona daude zerrendetan izena emanda. Eta arazoa okerrera doa, gero eta adineko gehiago baitaude eta ez dago denentzako lekurik.

Plataformakoe azaldu dutakoaren arabera, Udala osatzen duten politikariek gerontologi-

IRTENBIDEA

Proiektu berria gauzatu bitarteko irtenbide bat exijitzen dute, 60 lagunetik gora baitaude itxaron zerrendetan

ko berriaren aurreproiektua aurkeztu baino aste bat lehenago jakin zuten horren berri. Hori onartu zieten beraiei politikariek egindako bilera.

Baina Gerontologikoaren aldeko plataformako kideentzat, kezkarriena da Aldundiak ez dakiela ezer aurreproiektuaz. Hori adierazten du Ahal-

dun Nagusiak sinatutako agiri batek. Gainera, Aldundiko albiste berri ematen duen www.gizartekintza.net webgunean ez da proiektu honen inguruko informaziorik agertzen. Eta hemen, Aldundiak, 2008ra arte aurreikusita dituen egitasmoak ikus daitezke, eta Tolosakoa ez da agertzen.

Proposamen berria

Gerontologikoaren aldeko plataformako kideen ustez, «hauteskundeak hurbiltzen ari diren honetan, EAJk kanpaina egiteko erabiliko du gerontologikoaren gaia, azken orduko eta isilpean gordetako erantzun bat emanez». Hala ere, plataformakoe adierazi nahi dute, ez daudela proiektu berriarekin desadostasunean, «gerontologiko berri eta presatatu bat egiten badute gu oso gustora geratuko gara, baina arazoa da, hori egin bitartean zerbait egin beharra dagoela».

Hau gutzia kontuan hartuta, plataformako kideek proposatzen dutena da, Euskal Herria plazan kokatua dagoen egoitza berri ere martxan jartzea, «gastu txiki batzuk eginda, erabiltzeko moduan egongo bailitzateke». Kudeaketa lanari dagokionez berri, honetarako egokiena lurreamendi Fundazioa dela deritzote. Izan ere, honek lehen ere esperientzia du egin behar horretan, eta gainera, fundazio bat izatean, ez du etekin ateratzeko helbururik. Honen harira, Gerontologikoaren aldeko plataformako kideen ustez, «ziurrenik», EAJk proposatutako aurreproiektu horrek, orain artekoak ez bezala, izaera pribatua izango luke, beraz, prezioak igoko lirakete eta hau ez litzateke denen eskura egongo.

KIROLAK ▶

Asteburu makala izan da Hegoaldeko nesKentzat

ERREDAKZIOA

Jardunaldiko zaspigarren partida jokatu zuen Hegoaldeko larunbatean. 4-2ko emaitzarekin galdu zuen etxean Femesala Eltxeren aurka.

Helburu ezberdinak zituzten bi taldeek asteburukoan, Tolosakoek beraien etxeko lehen garaipena lortu nahi izan zuten. Nabarrosen neskek indartxu hasi zuten partida eta nagusi izan ziren. Lehen minutuan Txitxok sartu zuen gola, baina hamaikagarrerean Hegoaldekoek berdinketa lortu zuten. Hala, atsedenaldirako beste bat sartzea lortu zuten Eltxekoe, nagusitasuna erakutsiz. Bigarren zatian gehiago arriskatu zuten tolosakoek, baina gauzak ez ziren hobera joan, 4-2an amaituz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitz.): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramediei egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ADUNA ▶ KULTURA

Juan Kruz Igerabidek bigarren aldiz irabazi du aurtun Baporea Saria

Adunako idazlea 'Kakotxen k herrialdea' eleberriarekin nagusitu da

ERREDAKZIOA

Juan Kruz Igerabide idazle adunarrak 2006 Baporea Saria irabazi du. 1996. urtean ere sari bera irabazi zuen Igerabidek, Karlos Linazasororekin batera, *Gau, gau, gau* lanarekin, eta aurtun berriro lortu du epaimahaiaren oniritzia. Manu Lopez Gasenik epaimahaikidearen esanetan, *Kakotxen k he-*

rialdea «oso eleberri entretenigarria da. Alegiazko bi erreinuren arteko harremanak konstatzen ditu, eta emakumeen zorroztasunari esker bertan sortzen diren arazoak nola konpontzen dituzten erakusten du». Bestalde, «lankidetzeta eta adiskidetasuna bezalako baloreak bultzatzen ditu, eta harropatu egiten du irakurleak», gaineratu du.

Irabazlearen lana kaleratzeaz gainera, SM argitaletxeak euskarazko produkzioaren aldeko apustua egin du. Horretarako, euskal idazle gehiagoren lanak argitaratuko ditu, irakurketa bultzatzeko ekimen berriak sustatuko ditu eta gaur egun dituen testu-liburuak euskaraz ere kaleratuko ditu, hizkuntza horretan duen eskaintza zabaltzeko.

ZUZENKETA ▶

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO atzoko alean argitaraturiko immigrazioa eta giza eskubideen jardunaldiei buruzko informazioan egitarauan akats bat zegoen. *Lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak. Gure adin txikikoak ere badira?* izeneko hitzaldia bihar 20:00etan izango da. Bestetik, etzi 11:00etatik aurrera, San Frantzisko lbiltokian *Hesiaren bi aldeak* erakusketa izango da ikusgai. May Gorostia gain, bakarrizketa eskainiko du. Honez gain, *Gertutik hiltzea: hondoratze baten sekuentzia* argazki erakusketa ere egongo da.

ROBERTO RUIZ ▶ FRONTON JATETXEKO SUKALDARIA

«Tolosar guztiek dute lotura babarrunarekin, bere egiten dute»

'Pul, pul, pul Tolosako Babarruna' liburua aurkeztu du Roberto Ruiz Fronton jatetxeko sukaldariak; babarrunei omenalditxoa egin nahi izan die lan honekin

IÑIGO TERRADILLOS

Babarrunen eta Tolosaren arteko lotura aspaldikoa da. Duela 500 urte Tolosa merkataritza gune izan zen, eta ondorioz merkantzia ugari igarotzen zen bertatik, horien artean, Erta-merikatik iritsi berri ziren ale beltzak, babarrunak. Pixkanaka Euskal Herri osora zabaldu, eta ezinbesteko bilakatu zen, askotan goseari aurre egiteko jaki bakarrenetakoa izaten baitzen. Orduetik dator bada, Tolosako babarrunarena, eta historian izan duen garrantziagatik omenaldia egin nahi izan dio Roberto Ruiz Fronton jatetxeko sukaldariak *Pul, pul, pul Tolosako Babarruna* liburua idatziz. Hain zuzen ere, atzo aurkeztu zuen jendaurrean, eta berarekin izan zen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA liburuararen xehetasunen berri jakin nahian.

Tolosako babarrunaren inguruko liburua idatzi duzu. Zer aurkituko dugu bertan?

Babarrunaren inguruan egin diren idatzien edo lanen inguruko inbentarioa egin, eta hainbat sukaldariren errezeptak jaso ditut. Tolosako babarrunari buruzko sentimendu guztiak bildu ditut, hain zuzen ere egun duen leku pribilegiatu horretan mantendu dadin. Eusko Label, Gure Kaiola elkartea, Babarrunaren Kofradia, Tolosako Udala eta Tolosako sukaldarien aldetik, besteak beste, laguntza handia jaso dut lan hau egiterako orduan.

Nola sortu zen liburua egitearena?

Aspalditik zegoen ideia. Joxe Mari Gorrotxategik duela 20 urte inguru idatzi zuen Tolosa-



I. T.

ko babarrunaren inguruan, eta orain, liburu berri honekin informazioa gaurkotu nahi izan dugu.

Laguntzaile ugari izan dituzue liburua egiteko.

Ez naiz ni bakarrik aritu, talde lana izan da. Horregatik, esker-tu beharra dago, Jon Gaztañagak, Nestor Ardanazek, Marina Moralesek eta beste askok egin dutena.

Babarrunari buruzko xehetasun guztiak jakingo dituzue.

Martin Manchok erakutsi zidan produktua maitatzen, eta horrela hasi nintzen ikasten. Bera nekazaritza ingeniaria da, eta ikerketa ugari egin ditu babarrunaren kalitatea hobetzeko helburuz. 1985 eta 1986 urteetan, esaterako, Ibarako Montes baserrian Euskal Herriari lantzen ziren Tolosako babarrunaren 105 leken laginak bildu, lehortu eta ikertu zituen gabezia eta arazo handienak jakitera eman zituelarik. Ikerketa honetaz ezezik, beste hainbatentzako irakur daitezke berak kontatutako liburua.

Zergatik du Tolosakoak izena?

Duela urte ugari iritsi zen hona babarruna. Hala, garai batean, gosete garaietan eta, garrantzi handia hartu zuen, proteina ugari zituenez haragiaren ordeko lanak betetzen zituelako. Gerora, babarrunaren elkartek sortu dira, azokak antolatzen dira Udalaren laguntzaz, labela eman zitzaion, Slow Food ziurtagiria... honekin guztiarekin indar handia hartuz joan da Tolosakoa.

Slow Food ziurtagiria oso garrantzitsua da.

Bai, munduko 70 produktuk

SENTIMENDUAK

«Tolosako babarrunaren sentimendu guztiak bildu nahi izan ditut liburu honetan»

BABARRUNAK

«Osasunerako eta elikadurarako orohar oso onak dira; zerekin lagunduta jaten diren da kontua»

baino ez dute. Ingurumena eta kontsumitzaileen osasuna errespetatzen duten produktuei ematen zaie, eta babarrunaren kasuan hori betetzen dela ikusi zuten.

Babarrunak prestatzeko era asko aldatu da.

Lehen plater osatuagoak prestatzeko ohitura zegoen, eta txorixoa, odolkia edota haragia nahasten ziren babarrunekin. Orain, ordea, zaporeari garrantzi gehiago ematen diogu, eta babarrunak bere horretan prestatuta lortzen dela hori ikusi dugu.

Babarrun plater on bat prestatzeko sekretua?

Babarrun goxoak prestatzeko behar dugun garrantzitsuenak kalitatezko babarruna da.

Sabalerako ez zirela egokiak esaten zehen lehen.

Iñaki Arratibel medikuaren azalpenak ere irakur daitezke beste artean liburuan, eta argi uzten du berak ez dela horrela. Osasunerako, eta elikadurarako orohar oso onak dira, hori bai, zerekin lagunduta jaten diren da kontua.

Nori dago zuzenduta liburua?

Tolosako herriari zuzendua eta eskainia dago. Tolosar guztiak dute loturaren bat babarrunarekin, denek defendatzen dute, eta guztiak diote euren zati dela, benetan inorrena ez deanean. Guztiak babarrunari buruz gehiago ikastea izan da liburu honen xedea, beraz, asmo hori duten guztiarentzat egokia da.

FITXA ▶

Izenburua. *Pul, pul, pul Tolosako babarruna.*

Idazlea. Roberto Ruiz.

Diseinua. Jon Gaztañaga.

Argazkiak. Nestor Ardanaz.

Kolaboratzaileak. Martin

Mantxo, Martin Berasategi,

Rafael Garcia Santos, David

Kouri, Iñaki Arratibel, Migel

Zapiain, Javier Hualde, Felix

Belaunzarán, Pedro Ruiz

Elizondo, Txemari Esteban,

Euken Galdos, Iñaki Etxezarreta, Pepita Jauregi, Peio Doyharzabal, Felix Garrido, Matias Gorrotxategi, Iñaxi Luloaga, Juani Martinez, Juanjo Pascual, Ana Maria Olasagasti, Josebeto Olasagasti, Iñaki Etxeberria, Iñaki Lopez de Viñaspre, Mari Carmen Dorronsoro, Zeytinyagli Barbunya, Sukru Karakus, Peilong Zhu, Gaizka Macho Illoro, Iñaki Linazasoro eta Juan Gorriti.



ESKERTZA ▶

Lourdes Aguirreurreta Lasa andre hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hiletan elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Ibarran, 2006ko azaroaren 9a

hilberria ▶

Lourdes Aguirreurreta Lasa

(Beñat eta Lahiene gure ikasleen ama)



Une latz hauetan
bat egiten dugu
familiarren saminarekin

Uzturpe ikastolako langile, ikasle eta gurasoak.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SAN MARTIN JAIAK ▶

Martina Sorgina Amasako plazan da, San Martinekin batera jaiak ospatzeko

Amasako plazan egongo da jai guztietan zehar; bitartean, Amezketan 'Sanmar Sound Festival' eta Alkizan San Martin eguna iristeko irrikitan daude



Amasako Martina Sorgina jaitsi ondoren taberna inguruan bildu ziren bizilagunak. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Amasako jaiak atzo hasi zituzten, betiko suziarekin, baina pertsonai berri batekin: Martina Sorgina kanpandorretik jaitsi eta herriko plazan geratuko da festa guztietan zehar. «Laz gazte batek zuhaitz batean sorgin bat zintzilik utzi zuen eta urtero gauza berriak egin behar direnez, hori otu zitzaigun», antolatzaileetako batek esan zuen bezala.

Alkizan etzi ekingo diote jaiari: arratsaldean, 17:00etan haur jolasak izango dira eta beranduago meza nagusia ospatuko dute. Ondoren, pilotalekuan afaria egingo dute sagardo eta guzti, jarraian egingo duten Mus Txapelketa Azkarrekin lotzeko.

'Sanmar Sound Festival'

Amezketako San Martin Egunean bi aukera daude: San Martinen edo herrian, Udalak prestatutako meza eta bazkarian, eta 15:00etan kart-ak goiko frontoian.

Amezketako Gazte Taldeak eta Ospelak antolatutako dutena *Sanmar Soun Festival* izan da: bazkaria San Martinen egingo dute: ondoren mikrofono librea izango da: baten bat txiste edo bertsoren bat botatzeko ausarten bati aukera emateko. Ondoren joku animatuak egingo dituzte. Triki poteoa herrian, otartekoak afaltzeko eta kontzertuak izango dira San Martinen. Eguraldi txarra egingo balu, ordea, herrian egingo lukete antolatutako guztia.

EGITARAUAK ▶ SAN MARTIN JAIAK

AMASA

GAUR (GAZTEEN EGUNA)

06:00. Gazteen gosaria Ongi Etorrin trikitilari eta dultzaineroekin.

14:00. Gazteen bazkaria Uxotokin.

16:30. Soka-dantza eta aurrekua plazan. Trikitilarien erromeria.

21:00. Aferia Arantzabin.

ALKIZA

ETZI

17:00. Haur jolasak. Plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.

Ondoren. Toka Txapelketa.

19:00. Meza nagusia herriko elizan.

20:00-20:30. Aferia frontoian. Sagardoa edateko eta afaria bertan egongo da.

Segidan. Mus Txapelketa Azkarra.

AMEZKETA

ETZI

Egitarau ofiziala 11:00. Meza nagusia San Martinen. Eguraldi ona bada trikitilari eta bertsolarien saioa.

14:00. Bazkaria Txindoki jatebaxean. Jexuxen Jazpna eta Mañukorta, Zeberio eta Mendizabal bertsolariekin ariko

dira. Izena jatebaxean eman behar da.

15:00. Haurrentzako kart-ak goiko frontoian.

Gazteen egitaraua

Arratsaldean. Mikrofono librea, karretil karrera, jolas dibertigarriak...

Iluntzean. Herrian zehar triki poteoa, Loila eta Ekainekin.

21:00. San Martinen bokatak sagardoarekin eta musikarekin.

22:30. Skamabxine eta Birracel musika taldeak.

Ondoren, musika gau osoan zehar. kanpatzeko aukera izango da nahi duen guztiarentzat.

AMEZKETA ▶

Bilboko etziko manifestaziora joateko txartelak

Amezketan etzi Bilbon egongo den manifestaziorako eta jaialdirako autobusa antolatuta dute. Bilbora joateko txartela lortzeko gaur izango da azken eguna. Ohiko tabernetan lor daitezke.

ABALTZISKETA ▶

Interneteko oinarrizko ikastaroa

Interneteko oinarrizko ikastaroak hilabete honen baitan eta abenduan izango dira Abaltzisketako KZgunean. 16:00etatik 18:00etara edota 18:00etatik 20:00etara izango da ordutegia, eta aukeratu egin daiteke. Informazio gehiagorako KZguneko telefono zenbakira deitu behar da: 943 65 00 43.

ALEGIA ▶

Umeentzat, perretxikoei buruz, gaur

Gaur 18:00etan umeentzako hitzaldia antolatuta dute Azaro Kulturaren baitan: *Gure basoko perretxikoak* hitzaldia Ibon Azpilikuetak bideratuko du. Kultur Etxean bilduko dira denak.

AHT ▶


AHTren aurkako deialdia biharko deitu dute

AHT Gelditu! Elkarlanean eskualdeko plataformak Urbina AHT ez gunera joateko deialdia egin du. Bihar goizean, 08:15ean, hain zuzen, Tolosako Triangulo plazan eta 15:30ean abiatuko dira Urbina. Autoz joango dira.

VILLABONA ▶

Etzi EHNA tramitatuko dute Kultur Etxean

EHNA tramitatzeko aukera izango da etzi, Villabonako Kultur Etxean. Ez da arratsaldean egiterik izango; horregatik, 11:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian egin beharko da.



ADUNA ▶ KULTURA

Guztia prest Kultur Asteari ekiteko

Heldu den astelehenean hasita, adin guztientzako ekitaldiak antolatu dituzte



Aurreko urteetan ere haurrei zuzendutako ekitaldiak izan dituzte Kultur Astearen baitan. IMANOL GARCIA

ERREDAKZIOA

Jakiteak lekuri hartzen ez omen duenez, Adunan tartetxo bat egin nahi izan diote, Kultur Astearen itxuraz. Hala, astebe- tez, herritarren jakintzak aber- astuko dituzten ekitaldi ugari antolatu dituzte. Hona hemen banan bana guztiak zehaztuta:

AZAROAK 13. ASTELEHENA

20:00. Joxe Manuel Lekuonaren hitzaldia, kultur aretoan; *Perretxikoak: urtemugak, bizilekuak, usainak eta koloreak.*

AZAROAK 14. ASTEARTEA

20:00. Kultur aretoan, *Gure ama hizkuntzaren jatorria* hitzaldia.

AZAROAK 15. ASTEAZKENA

20:00. Kultur aretoan, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkolaren *Zizurkildarrak Gasherbrum mendian* diapositiba emanaldia.

AZAROAK 16. OSTEGUNA

20:00. Kultur aretoan, *Euskal Herrian marthan dagoen prozesua eta Autodeterminazioa* hitzaldia.

AZAROAK 17. OSTIRALA

17:15. Enkarni Genuaren *Erreka Mari* txotxongiloak kultur aretoan.
18:00. Loatzo musika eskolako kalejira.
21:00. *Aupa Etxebeste* filma kultur aretoan.

AZAROAK 18. LARUNBATA

09:00. Plazatik abiatuta, mendi ibilialdia, Adunako inguruak ezagutzeko.
17:30. Korri, Xalto eta Brinko pailazoan emanaldia. Ondoren, barrikotea-taloak-gaztain erreak herriko frontoian.

AZAROAK 19. IGANDEA

Autodeterminazioaren Aldeko Eguna
12:00. Herriko plazan, argazki erraldoia, inguruan biltzen diren herritarren artean.
13:30. Kantu bazkaria: Babarrunak, azak, txorizoa, odolkia, saihetsa, postrea eta kafea, herriko frontoian.

*Sustapenak 3 hilabeteko bali du. 2006/12/01 baino lehen egindako kontratazioetatik. Sustapenak gurean onduren, produktu guztiak kontratatuta segituko duite, bezeroak, besterik jakinarazten ez bada. Telexitoak, Gaijenak, Hilean 5,000 minutu. Enea amatu ondoren, produktuen prezioak hauen kanpo dira. Kuota 15 €. Aholku jarri lortzeko 18 € 3 megabiko Banda Zabala 39 € eta TB Osoa 25,90 € (diskoetzailea sartu gabek). Zeharkako zergak ez daude sartuta. Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

Zure bizilagunak badu jada. Probatu nahi duzu?

Egin proba 3 hilabetez zure etxean

Telefoniaren Hileko Kuota + Finkoetarako Deiak 24 Orduz + Banda Zabala 3 Mega	} 1€ / hil
---	----------------------

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa; hilean beste 10€ bakarrik.

Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.



IBARRA ▶ GIZARTEA

MADDI SOROA

Pontxoak eta pitxitxiak, pitxitxiak eta pontxoak. Horiek dira Txiribitu. 9 eta 11 urte bitarteko haurrek osatzen dute pontxoan taldea, 11 eta 13 urte bitartekoek, berriz, pitxitxiak. 30 haur guztira, denak ere ibartarrak. Begiralerik gabe, ordea, ez litzateke Txiribituri egongo. Hori dela eta, zazpi begirale ditu gaur egungo Ibarako Txiribitu aisialdi taldeak.

Elkargune, Ibarako parrokiatzeko lokala dute eta hitzordua, larunbatetan 16:00etatik 18:00etara. Larunbat arratsaldeetatik gain, ordea, beste hainbat ekintza antolatzen dituzte urteko garaia araberak, izan ere, hiru zatitan banatzen du Txiribituk ikasturtea. Lehenak, ikasturte hasieratik eguberriak bitarteko iraupena du, inauteriak bitarteko ia zango litzateke bigarrena eta azkena, inauterietatik udara bitartekoa.

Urteetan zehar, hainbat eta hainbat txoko ezagutu ditu Txiribituk, herriko eta eskualdeko hamaika ekintzetan hartu du parte, enbaxadore lanetan aritu da kanpaldietan eta inauterietako urteroko zitan arabiarrez, bikingoz, txinatarrak edota jubilatuz mozorrota dira, besteak beste.

Mozorro, jolas, ibilaldi edota orokorrean aisia baino zerbait gehiagorako ere bada Txiribitu, ordea. Izan ere, giza irudimena lagun harturik, giza jokabidearen arlo ezberdinen inguruko hausnarketa bideratzea izan du xede nagusi taldea sortu zen egunetik gaurdaino.

Txiribituren sorrera

1994ean sortu zuten Txiribitu aisialdi taldea Ibarako parrokiaren inguruan zebiltzan lau gaztek. Garai hartan herriko apaiza zenarekin hitz egin eta

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da larraulen. Kobxa beharrezkoa. 665 70 66 90.

SALGAI

Pisua. Leiztan pisua salgai. 2 logela, sala, sukalde, bainugela, berogailu individuala eta bi balkoierkin. Sartzeko. 158.000euro. 943 65 25 81.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 18ko lllantak eta tebuva. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

Txiribitu aisian heziz

12 urte beteko ditu aurten aisialdi taldeak, hasiera zaila izan arren, gogotsu eta indartsu dirau gaurdaino haurrei elkarbitzta irakatsiz



Aurtengo udan Zudairen izan dira Txiribituko haurrak urtero egin ohi den udalekuetan. HITZA

OLATZ EIZAGIRRE ▶ TXIRIBITU TALDEKO BEGIRALEA

«Gaurko haurrek dena dute eskura eta ez dituzte gauza txikiak estimatzen»

Ibartarra da Olatz Eizagirre (1987) Txiribitu Aisialdi taldeko begiralea. Begirale guztien izenean, Txiribituren helburuen inguruan mintzatu da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Txiribituren helburuak azaltzerik bai?

Giza jokabidearen arlo ezberdinen inguruko hausnarketa bideratzea da gure helburua. Horretarako, Ibarra, euskara, natura eta kristautasuna ditugu ardatz nagusiak. Ibarrari dagokionez, haurrek herriaren nortasuna eta aberria sentiarazi dezaten saiatzen gara, bai-

ta herriaren historia jakin dezaten ere. Euskararen inguruan, gure hizkuntzak duen balioaz ohartarazten ditugu erabilpena bultzatzearekin batera. Naturaren kasuan, natura maite dezaten saiatzen gara, mendi irteerekin etabar; bestalde, natura errespetatzen erakusten diegu. Kristautasunari dagokionez, kristau baloreak abiapuntu hartuta, haurrei gertuko egiten zaizkien kontzeptuak lantzen ditugu, laguntasuna esaterako.

Eta lorpenak?

Guk beti lantzen duguna, gaur egungo haurrek duten mate-



HITZA

Hazten doazen heinean konturatu dira. Taldea uzten duten unean konturatu dira Txiribitun izan diren urteetan ikasitako gauzetaz.

Herri txiki batean aisialdi taldea izatea ez da erraza, ala?

Izan dira garaia haur gutxiago izan ditugunak, baina Txiribitu beti atera da aurrera. Haur asko edo gutxi izan ez da arazo, gure helburuak betetzen direla ikusten badugu gustura gaude, hori da garrantzitsuen guretzat. Haurrekin landu nahi ditugun kontzeptuak barnerrazten dituztela, alegia.

Begirale izatetik zer duzu gustukoena?

Begiraleon artean dugun giro ona asko baloratzen dugu, elkarren artean dugun adiskidetasuna eta konfidantza, hain zuzen. Haurren kasuan ere, oso aberasgarria da elkarren artean dugun tratua. Talde txikia izatea hori du alde ona, haur guztiak ondo ezagutzeko aukera duzula eta ondorioz famili giroa sortzen dela. Guztiok ezagutzen dugu elkar eta horrek dena errazten du. ◀

rialtasuna da. Gaurko haurrek dena dute eskura eta ez dituzte gauza txikiak estimatzen. Gure kompetentzia horixe izaten da, haurrak ondo pasa dezaten saiatzen gara baina kontratuaz ez dela gauza mordo behar ondo pasatzeko. Gauza gutxiarekin ongi pasatzea badagoela kontratuaz nahi ditugu haurrak. **Ohartzen al dira horretaz?**

iragarki laburrak ▶

LANA

Osakidetza. Laborategirako teknikoak, mantentze langileak, zainzaileak, administrari laguntzaileak behar dira. 943 31 37 82.

Gidariak. Lanpostu finkoak libre. Lanaldi jarraitua. 943 31 37 82.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Tolosaldeko eta leitzaldeko txoko eta paraje ezberdinetako argazkiak, erretratuak edota jaietako irudiak ikusteko aukera dago gure webgunean. Sartu eta klikatu irudien tartean.

LEITZA ▶ POLITIKA

Igor Astibia aske utzi du Espainiako Auzitegi Nazionalak 25.000 euroko fidantzapean

«Sarekada prebentiboetan» 2004. urtean atxilotu zuten leitzarra; gastuei aurre egiteko senitartekoek kontu korrante bat ireki dute Euskadiko Kutxan



Udalbatzarra Leitzako udaletxean, Igor Astibia atxilotu ondoren. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

«Sarekada prebentiboetan» 2004ean atxilotutako 4 pertsona aske utzi dituzte, 25.000 eurotako fidantzaren truke. Espainiako Auzitegi Nazionalak hartutako erabaki honen ondorioz, Igor Astibia Telletxea leitzarra aske geratu da.

Azaroaren 16a zen denek buruan zuten data, orduan 2 urte beteko baitzituen Igor Astibia kartzelan. 2004eko azaroaren 16an espetxean sartu zutenetik presoaldi prebentibo egoeran zegoen, eta duela pare bat aste bere egoera zehazteko bista bat egin zuten. Bertan presoaldi prebentibo egoera luzatuko zitzaioala erabaki zutenez jada herritarrek 2006ko azaroaren 16ra begira zeuden, kartzelan emandako 2 urteak salatzeko.

Gauzak horrela, Astibiaren askatasunaren berriak ustekabean hartu ditu bai senitartekoak, baita herritarrek ere. «Asteartea egun normala zen, hau da, beste egun bat gehiago hemen, herrian, eta han, 500 kilometrotara dagoen kartzelan», baina iluntzeko 19:15ak

aldera espetxeko arduradunek Igor Astiari berria eman zioten. «Igorrek berak deitu zuen etxera aske uzten zutela esanez», azaldu dio TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZARI Eneko Astibia lehengusuak.

Pasabideak

Igor Astibiaren askatasunaren truke 25.000 eurotako fidantza ordaindu behar izan du familiak. Eneko Astibia azaldu digun bezala, kalean izan arte, egin beharreko bideratzeak ugariak dira. Lehenengo epaitegira jo behar dute senitartekoek, bertan bankura eramateko agiri bat jasotzera. Banketxean fidantza ordaindu ondoren, Iruñeko epaitegiaren eta Navalcarneroakoaren artean jarraitzen du tramiteak eta azkenik, espetxera iristen da. Igarobide hutsa izan arren, ezinbestekoa da familiak senitartekoa kalean ikus dezan.

Igor Astibiaren familiak kontu korronte bat ireki du Euskadiko Kutxan fidantzaren dirua ordaintzeko laguntzeko prest dagoenak bere diru-ekarpena egin dezan. Nahi duenak, be-

raz, kontu korrante honetara sar dezala dirua: 3035 0118 841181027855.

Ongietorria

Egun guztian zehar senitartekoek eta herritarrek ere zehatz-mehatz zer ordutan iritsiko zen ez zekiten arren (00:00, 1:00, 2:00etan...), ongiatorri beroa izanen zuela argi zeukaten. Eguerdik alderako berria herrian zabaldua zen, eta kartzelak nonahi jarri zituzten. 20:00etan batzarrerako deia egin zuten herriko plazan, dagoeneko bidean ziren edo ez jakinarazteko. Erredakzioa itxi zenerako oraindik iritsi ez bazen ere, ongiatorriaren nondik norakoak Eneko Astibia azaldu zizkigun: «Aresoko kruzean auto ilaran ikurrinarekin etorriko dira, eta herrian bueltak bat eman ondoren, plazara zuzenduko dira. Bertan txalartariak eta dantzariak egongo dira Igorri ongiatorria emateko zain, eta lore-xorta bat ere emanen diote». Hurrengo astean beste omenaldi bat egingen zaio, eguna zehaztu gabe dago oraindik.

2 urte kartzelan

Igor Astibia Telletxea 2004eko azaroaren 16an atxilotu zuten, Espainiako Polizia burutu zuen atxiloteta operazio baten barruan, beste 15 pertsonekin batera. Astelehenetik astearteko goizaldean, 01:30ak aldera, Espainiako polizia bera eta bere neskalagunaren Iruñeko etxeko atea jo zuen. Bost polizia agente eta bi judizialek «ETAko azpiegiturako kide izatea» leporatzen zitzaioala azaldu ondoren, etxea miatzeko agindua zekartela azaldu eta miaketa lanei ekin zieten, bikoteari beraien miaketak irauten zuen bitartean hitz egitea «debekatuta zutela» argi utzi.

Ondorengo hiru egunetan inkomunikatuta egon zen, eta senitartekoek orduan azaldu zuten bezala, Igor Astibia berak egun batzua pasa ondoren deitu arte deus jakiterik ez omen zegoen. Informazio falta erabatekoa zen, zekitena komunikabideek esandakoa baitzen. «ETAko kaptazio aparatuko kide izatea» leporatu eta inkomunikazio egun hauek pasa ondoren, «tortura bortitzak» eragin zizkiotela salatu zuen, «flexioak, kolpeak buruan eta

hanketan» aitatu zituen. Azaroaren 18an Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratzera deitu zituzten Auzitegi Nazionalan gau hartan atxilotutako 8 gazte. Hauen artean Igor Astibia zegoen eta ETAko kidea ez zela deklaratu zuen. Deus ere onartu ez zuen arren, espetxera sartu zuten, Soto del Realen aurrean, eta Navalcarneroan handik egun gutxira, Leitzatik 497 kilometrotara.

2005eko azaroaren 4ean Espainiako Auzitegiaren eraman zuten berriro, kasu honetan Grande-Marlaska epailearen aurrera, eta Baltasar Garzon eta Guardia Zibilaren aurrean egin zuten bezala, akusazioa ez zuten onartu.

Jende gehiago aske

Bestalde, Igor Astibiarekin batera, beste 3 pertsona utzi dituzte aske 25.000 euroko fidantzaren truke. Mainer Viso bilbotarra, Izaskun Villanueva berriozartarra eta Ruben Nieto bilbotarra.

Honetaz gain, herenegun, azaroaren 7an, 2003an sarekada prebentiboan atxilotutako 15 pertsona askatu zituzten. Unai Redin (Iruñea), Mikel Jauregi (Bilbo), Josu Lezama (Zalla), Iñaki Ramos (Barakaldo), Asier Ortiz de Guinea (Gasteiz), Aiala Manrique (Gasteiz), Peru Aranburu (Lekeitio), Unai Darioñbeitia (Lekeitio), Asier Bengoa (Gasteiz), Agurtzane Izartza (Gasteiz) herenegun atera ziren kartzelatik 3 urte eta erdi espetxean pasa ondoren. Epaiketara irailaren 7an hasi zen eta bertan fiskalak 8 eta 11 urte bitarteko kartzela zigorrak eskatzen zituen arren, epaiketara eta bi hilabete beranduago atxilotu zituzten 18 pertsonetatik, 15 aske utzi dituzte.

GERTUTIK ▶ IGOR ASTIBIA

Hagitx saiatua

Igor Astibia Telletxea Leitzan jaio zen duela 31 urte, 1975eko otsailaren 9an. Leitzan jaio eta hazi den arren, aspaldiko urteetan Iruñean bizi da.

Ikasketak Leioako unibertsitatean burutu zituen, eta hiru arlotan lizentziatu tituluduna da: Soziologia Politikoan, Soziologia Urbanoan eta Zientzia Politikoetan. Unibertsitateko ikasketez gain, hainbat ikerketa egin ditu gai hauen inguruan. Antropologia ikasketak ikasten hasi da, eta oraingoz asinatura guztiak gainditu ditu.



Igor Astibia leitzarra. HITZA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Kultur Astearen egitarauaren baitan, udaletxeko kultur gelan. 19:30ean. *Nola kontsumitu garapen iraunkorraren ikuspegitik* hitzaldia emango dute. Kasu honetan Maider Etxaide izango da hitzaldi bideratzailea.
Belauntza. Kultur Etxean, 17:00etan, *Nola eraman artikulazioaren higadura* hitzaldia izango da entzungai.
Tolosa. Tolosako XX. Babarrun Lehiaketa dela eta, lehiaketaren ostetan izango den bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Interesatuak, Gure Kaiola elkartera, lan egunetan, 19:30etatik 21:00era joan behar dute.
Tolosa. Tolosako Babarrun Astearen harira, 10:30etik aurrera, gustuaren egunari buruzko hitzaldia eskainiko dute ikasleentzat, Felix garridoren eskutik, Laskorain ikastolan. 19:00etatik aurrera, III. Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketa egingo dute.

ZINEMA

Leitza. Gaztetxean, 20:00etatik aurrera *Hotel Ruanda* filma ikusgai.
Tolosa. 21:30etik aurrera, Leidor aretoan, zine-forum saioan, Volker Schlöndorff zuzendariaren *El noveno día* filma ikusgai.
Villabona. 22:00etatik aurrera zine-klub saio berri bat izango da ikusgai, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Gimeno, A. Elbarrn, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bidean geratzen direnak

TOLOSA ▶ Immigrazioa eta giza eskubideen jardunaldien baitan, 'Gertutik hiltzea: hondoratze baten sekuentzia' erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean



Etorikin honek begirada tristeja jasan duen egoera larriaren adierazgarri da. HITZA




Txalupa txikiak hondoratu egiten dira askotan, euren biziak arriskuan jarrit. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Sos Arrazakeriak antolatutuen *Immigrazioa eta giza eskubideak* jardunaldien baitan, Juan Medina-ren *Gertutik hiltzea: hondoratze baten sekuentzia* argazki erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean larunbatera arte, 18:30etik 20:30era. Etorkinek euren lurra utzi eta herrialde aberatsetara bidean jasandako agerian geratzen dira erakusketaren bidez. Mugimendu migratzaileen gaia arretaz lan du argazkilari argentinar honek. Bere lana komunikabide askotan argitaratu dute, erakusketa askotan hartu du parte, eta hainbat sari eskuratu ditu atera dituen argazkiengatik.

Bestalde SOS Arrazakeriak antolatutuen jardunaldien baitan, *Lagunduta ez dauden adi txikiok atzerritarak. Gure adin txikiok ere badira?* gaia landuko dute biharkoan. Hitzaldia 20:00etan izango da Kultur Etxean, eta loxe Elizondo ariko da moderatzaile lanetan. Hizlariak, berriz, Vicenc Galea i Montero (DRARI), Diego Lorente (SOS Madrid) eta Peio Aierbe (Mugak) izango dira.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Miren.
Familiarren partetik.
Muxu handi bat!

URTE ASKOAN AITATXO!
Hodei Galarraga. Gaur bai, jaio da izar berri bat Euskal Herrian. Zorionak aitabo eta amaboi!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...